



**2024ko EUSKO IKASKUNTZA-LABORAL KUTXA SARIAK
BANATZEKO EKITALDIA
ENTREGA DE PREMIOS EUSKO IKASKUNTZA-LABORAL
KUTXA 2024**

2024-07-19 Bilbao 19-07-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren Sailburuok, herri agintari eta ordezkariok, Eusko Ikaskuntza eta Laboral Kutxa-ren arduradunok, epaimahaikideok, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko zuen guztion hitzengatik.

Estimaten da, Ana Olo Sailburua, zure parte hartzea eta gertutasuna. Asko da elkartzen gaituena eta bide horretan sakontzea dagokigu datozen urteetan ere. Seguru naiz horrela egingo dugula.

Gure esker ona eta aitortza Eusko Ikaskuntzari eta Laboral Kutxari Sari hauek antolatu, zaindu eta zabaltzeagatik.

Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte-Zientziak gure gizartearen ezinbesteko zutabeak dira. Ezinezkoa genuke aurrera egitea beraiek gabe. Iparra markatzen digute, bidean galdu ez gaitzen.

Honenbestez, bidezkoa eta beharrezkoa da diziplina hauetan nabarmendu diren pertsonak saritzea. Bere ekarpenari aitortza justua egitea. Ez bakarrik zuen izenean. Baizik eta euskal gizarte osoaren izenean egiten duzue.

Lagun batek aspaldi esan zidan Sari baten garrantzia ez duela sariak berak adierazten. Are gutxiago berarekin batera ematen den ordainsariak.

Bere garrantzia aurreko edizioetan Saria jaso duten pertsonak ematen diote. Eta Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxaren Saria jaso duen pertsonen zerrendak edonor aho zabalik utziko luke.

Hori da urte hauetan guztietan lortu duzuen: aukeraketa-lan bikain baten ondorioz sariari berari prestigioa ematea. Zorionak, benetan!

Puntu honetara iritsita, derrigorrezkoa da epaimahaikide guztiei aipamen berezi bat egitea. Ezaguna zait zuen isilpeko lana eta balioan jartzen dut.

Aukeraketa bat egin behar izan duzue eta aukera hori arrazoi garbiz defendatu duzue beste behin ere. Zuen lana ez da erraza, baina argi dago zuen argudio sendoei esker erraztu egiten duzuela. Eskerrik asko horregatik ere!

Orain bai, zorionak Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Saria jaso duzuenoi!

Maite Aizpurua eta Garazi Navas, Gaztea Saria merezimendu osoz jaso duzue. Proposamen berria eta berritzailea da zuena; proposamen gaztea egin duzue.

‘Adarbakarra eta soinujolea’ sormenaren adibide garbia da.

Euskal mitologia, ikuspegi queer-feminista eta garaikidea. Literatura eta musika. Poesia eta umorea. Diziplina arteko esperimentazioa eta euskal topikoen gaineko gaurkotasunezko hausnarketa.

Ondo oinarritu eta defendatutako proiektua, sormena erakutsi eta gogoia pizten duena, ilusioz aparte.

Zorionak, benetan!

Zorionak, noski, baita Itziar Lakari ere. Eztabaidaezina den zure ibilbide profesional eta akademikoa aitortzen du Sari honek, baita erakutsi duzun ikerketarako eta berrikuntzarako grina eta aitzindaritza balioan jarri ere.

Zure ekarpen guztietatik bat nabarmenduko nuke: “Gogo elebiduna / La mente bilingüe / The bilingual mind”.

Zein garrantzitsua den gure hizkuntzaren errealitatea ondo ezagutzea... Zein garrantzitsua den munduan ondo kokatzen asmatzea...

Zeregin horretan erakutsi duzun aitzindaritza aitortzen da eta, horrekin batera, ezagutza hedatzeko zure etengabeko ahalegina: Euskal Herriko Unibertsitatean, Jakiunden, Euskaltzaindian, Ikerbasquen edo Elhuyar-en...

Ikerketa egin eta zabaldu, ezagutza erein eta hedatu.

Eskerrik asko, benetan!

Hiru saridunok izan duzue kultura, sormena, ikerketa edo dibulgazioa astintzeko nahia eta gogoia. Hiru saridunok saiatu zarete gure Herriaren nortasun berezia ezagutzen eta ezagutzera ematen.

Gaur, berriro ere, hiru saridunok erakutsi duzue zuen ausardia, ilusioa, beharra eta gogoia bide horri jarraipena emateko.

Horregatik guztiagatik, Maite, Garazi, Itziar, gure esker ona!

Egun ona izan guztiok!